

MIKELA TA PRANCHISKU



Mik.—Pranchisku ¿zetakizu zer pasatzen dan?

Pran.—¿Zer bada?

Mik.—Lizartzako zera, zertzen omen da zereko zerarekin, eta aiek zertzen badira, inñolaz ere zereko zerera zertuko dira.

Pran.—Emakumia¿zer esan nai dezu zer orrekiñ? Ez bazera obeto zertzen ¿nola nai dezu nik zertzia zer ori?

*
* *

NIZETA ATSOA



Erretratau egin da Nizeta atsoa,
Eun da bi urte atzo iragorikoa,
Ta zelan oker daukan ta ezain agoa
Irudian urten dau bera dan langoa,
Ta berak ain ichusi urten deutsalako
Erretratu giñaren errutzat baidauko,
Augaitik ezeutsan nai bearra saritu
Ezta erretraturik bere gura artu;
Baña besteakeutsan orduan esaten:
«Ezpadeustazu lana niri ordainduten,
Juezagana noa eta anche laster
Ikusiko da agoa badaukazun oker,
Ta alan badaukazu, lau bider geiago
Bearko dozu emon ta ezgichiago».
Orrelan bildurtuta emon bost peseta
Eutsazan, baiña damuz bizi da Nizeta
*Izan gura dabenik bat bere ichusi
Oraindiño munduan nik eztot ikusi.*

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

